





### KULTUR ETXEKO BERRITZE LANAK

Kultur etxean hainbat berritze lan egiten ari dira egunotan. Goiko alde guztia erosoago jarri eta erabilera anitzeko aretoa egokitzea da asmoa. Diru-laguntza bati esker ari dira lanak egiten, eta gauzak ondo, urte berriarekin batera, kultur etxe berritu eta egokitua edukiko dugu.



Ezker Abertzalea legeztatzeko eskatzeko elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek udaletxearen aurrean, joan den abenduaren 18an. Guztira berrogeita hamar bat zeraindar elkartu ziren legalizazioa babesteko.

### Medikuaren txanda eskatu behar da kontsultara joateko

Medikuarengana joateko ezinbestekoa da aurrez txanda hartzea. Azken boladan, hainbat herritarrek txanda ez dutela hartzen-eta, Osakidetza kexu azaldu da. Gainera, medikuaren zerbitzua aurrera begira ere bermatzeko, kontuan hartzen dituzten datuak deituta txanda hartutako herritarrenak dira. Horregatik, are garrantzitsuagoa da medikuarengana joan aurretik dei hori egitea Beasaingo anbulategira (943027700). Bestalde, Gabon garaian ordutegi bereziak izango ditu kontsultan. Egun biz bat egongo da zerbitzua herrian goizeko 8etatik 10etara. Hemen zerbitzurik ez dugun egunetan Mutiloan egongo da ordu berean. Horrela, honako egunetan izango dugu kontsulta herrian: **abenduak 20, 22, 28, 30 eta urtarrilak 3, 5, 7.**



Abenduaren 3an euskararen nazioarteko eguna Zeraingo eskolan ere ospatu zuten. Gaia lantzeko argazkian ikusten den murala osatu zuten guztien artean.

### Otatzaren irekiera urtarrilaren 14an

Sagardotegi denboraldia urtarrilaren 14an, ostirala, hasiko dute Otatza aldean. Udazkenean egindako sagardoa dastatzeko eta bikain jateko aukera ezin hobea, beraz.



### Basazabalgo gaztak atzerriko saria jaso du

Azaroaren amaieran Ingalaterrako Birmingham hirian munduko gazta lehiaketa jokatu zen. Guztira 29 herrialdeetako 2500 gazta baino gehiago aurkeztu ziren hainbat modalitateetan. Idiazabalgo gaztak ere baziren txapelketan, eta tartean Basazabalgo Jabier Muñoarena. Eta Zilarrezko Domina jaso zuen Jabierren gaztak (aurrez ere antzeko sariak jasotako da). Zorionak Jabier eta familia!

### Ondasun higiezinaren ordenantza fiskala

Ondasun higiezinari buruzko zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatuko dituen ordenantza fiskalean hainbat aldaketa egin dira, eta 2011ko urtarrila dago laguntzak eskatzeko. Gehiago jakiteko udaletxera jotzea da onena.

## Gantxarrea, urdai-gantxarrea

Orain dela berrogei bat urte *gantxarri* esaten zioten Urretxun eta Antzuolan. Hala jaso zuen behintzat Kandido Izagirre zenak, eta 1968an argitaratu. Bizkaierako Gipuzko aldean *gantxirri* erabiltzen da sarri, antza denez. Goierri alde honetan, ordea, *gantxar* edo *gantxarre* esaten zaio normalean. Elenak halaxe bildu du herrian, adin batetik gorakoan artean. Orotariko Euskal Hiztegian ere Goierrikotzat ematen du *gantxar* hori. Antzeko beste forma asko ditu han-hemen, baina denetan ezagunena honako hau: *gantxigorra*. Hots, *gantx xigorra*, "grasa tostada" edo "chicharrón de manteca de cerdo".

Elenak jasotako datuen arabera, baserrian ohiko janaria izaten zen *urdai-gantxarrea* arrautzekin. Gaur egun ez omen da horrenbeste erabiltzen: hirugiharrek aurrea hartu dio, nonbait, zeraindarren artean ere. Hirugihar hori ere, sartaginean ondo frejitzuz gero, *gantxar* bihurtzen omen da. Hitz horrek badu bigarren adiera bat, nonbait: gutxi gorabehera, "grasa o mantecacalentadamás de la cuenta". Elenaren hitzetan, "zerbait xigortu edo ia kiskalia".

Gauza bat dira, nonbait, *gantza*, *gantzagia* edo *gantxarrea*, eta beste bat *koipea*: *gantzagiaren* kasuan, esate baterako, honela azaltzen du OEHLk bien arteko diferentzia: "se llama *gantzagi* la manteca o grasa no derretida. La derretida se llama *koipe*. Gaur egun ez dira kontuak, agian, hain zorrotz bereizten. Ikustekoa litzateke, nolana ere, bereizketa hori zeraindarren artean (zer adinetako eta nongo zeraindarren artean) indarrean dagoen.

Bizirik dago hitza Zerainen. Berrogeita hamar urtetik gorakoan artean, behintzat, askotxoren ezpainetatik jaso ahal izan da bere testigantza. Elenak gogoan ditu hainbat pasadizo. Aurtengoak dira guztiak, eta azken egunotakoak gehienak:

a) Aurtengo udan, oso egun beroa egin zuen batean, honela en-



**Gantxarrea talo jainean jarrita ez da nolana ere jakia.**

tzun nion Axuni: "hau beroa; arropak ere ia *gantxarra* eginda zeuden jaso ditudanean".

b) Xantik, berriz, honela komentatu zidan hain aspaldi ez dela: "guk enkargatu bati esaten genion *Gantxarrea*, pertsona errea zelako".

c) Jose Manuelek, berriz, beste adiera hau eman zidan. Sukaldeko mahaia oso zikina zegoenean, kostra bat eginda alegia, honela esaten omen zuten: "mahai horrek dauka *gantxarrea*!"

d) Lehengo larunbatean, azkenik, Maribelek honela galdetu zidan: "taloa *gantxarrakin* jan al den?"

Bistan da, beraz, umetan edo gartzetan ikasitako janaria ez dela oraindik erabat galdu, zeraindarren hizkeratik. Adin batetik gorako zeraindarrez ari gara noski. Gazteen artean, aldiz, ez dakigu gauzak nola diren: ez dugu galdetzeko astirik hartu, ez Elenak eta ez nik. Ez ginatete asko harrituko, halere, ikusiko bagenu erdiak baino gehiagok ez dutela ezagutzen eta gehien-gehienek ez dutela erabiltzen. Motiboa, gehienetan bezala, begien bistan dago: janari prezia-tua zen lehen *gantxarrea*, eta orain ez da. Ez behintzat lehengo neurrian,

urrundik ere. Zenbat etxetan hiltzen da orain, Zerainen, txerria? Txerria hil gabe, berriz, zaila da sukaldean *gantxarre* gozorik izatea, Ez dagonetik, berriz, ez da jaten. Jaten ez den gauzari, azkenik, zertarako izena eman? Aplikazio praktikorik ez duen terminoa zertarako gure hitz-altxorean integratu eta, hala ez badagokio ere, tarteka-marteka erabili? Nor da gure artean, berdin du zahar edo gazte, alferlan horien guztien zale? Galtzen ari da, horregatik, *gantxarrea*: bai hitza eta bai jaki-puska.

Gehixeago ere esango nuke, hipotesi moduan: beikon-aez ote da *hirugiharra* bezain ezagun, Zeraingo gazteen eta ez hain gazteen artean? Hurrengoan erantzungo diogu beste galdera horri, kontuak xuxen atera ondoan. Bitartean, babarrun-platerkada bat jan nahi baduzue egun hotz hauetan, ez ahaztu *gantxarre* puska bat eranstea. Jaitsiko ditugu kiloak, aurreraxeago, ahal bada behintzat. Zer arraiol!

Mikel Zalbide eta  
Elena Mendizabal



## Xagu-txoko



Babesetik

AZAROA	al	ar	az	og	or	lr	ig
	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>
Euria (l/m)	35	5	0,75	0	0	0	17
C° altuena	16	15	21	20	18	15	12
C° baxuena	15	9	11	13	14	8	10
	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>	<b>14</b>
Euria (l/m)	13	15	35	0	0	0	13
C° altuena	13	16	16	14	22	20	15
C° baxuena	5	7	11	3	9	9	10
	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>19</b>	<b>20</b>	<b>21</b>
Euria (l/m)	13	3,5	5	1	0	10	29
C° altuena	17	16	13	15	12	17	11
C° baxuena	2	6	3	2	3	7	7
	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>	<b>26</b>	<b>27</b>	<b>28</b>
Euria (l/m)	15	2	2	14	10	1,25	0,50
C° altuena	13	13	11	14	12	7	11
C° baxuena	4	2	3	2	1	-2	-1,5
	<b>29</b>	<b>30</b>					
Euria (l/m)	0	0	GUZTIRA: 240 l.				
C° altuena	9	11	ALTUENA: 22°				
C° baxuena	-4	4	BAXUENA: -4°				

## Azaroan elurra

Azaroan denetarik izan dugu, baijan orokorrean bustia eta hotza izan dela esan daiteke. Euria beste urteetako antzera egin du, eta tenperaturak ere antzeko ibili dira. Hori bai, hilaren bukaeran San Andresek bere ikutua utzi dute: elurra izan dugu mendietan nahiko behera. Azaroaren 26an majo bota zuen eta izotza ere galanta izan genuen termometroak -4° arte jaituta. Udazkena izan arren, negu itxurako azaroa izan da aurtengoa.



Oamendin elurra azaroaren 26an

## Horra! Horra! Non bizi den gure Olentzero



Abenduaren 12an, Olentzeroren etxea ikustera joan ziren Mungiara Basarte guraso elkarteak antolatuta, herriko haur eta gurasoak. Olentzerori gutuna eman ondoren, egunpasa ederra egin zuten guztiek. Ea orain ikazkina bueltan etortzen den gutunei kasu eginda!

## 2011ko egutegiak

Zeraingo Udalak 2011ko atera dituen eskuko-egutegi txikiak banatuko dira XaguArtearen alde honekin batera.

## Inozentzio Olea hil da

Azaroaren 12an hil zen Zeraingo seme Inozentzio Olea Legazpin 88 urterekin. Urtetan gure Urtekariko kolaboratzaile fin izan dena joan zaigu. Eskerrik asko eta goian bego.

## Ostatu oporrak

Urtarrilaren 17tik otsailaren 17ra urteko oporrak hartuko dituzte ostatuok. Ondorioz, taberna eta jate-txea itxita egongo dira hilabetez.

## Olentzero saria bolatea

Abenduaren 18an jokatu zen Zerainen Olentzero bola Saria. Xabier Lazkano izan zen nagusi, Patxi Arrondo, Miguel Burugain eta Lander Ugalderekin aurretik.